




gazteria nekazaritzan gertokizun bila  
**TAILERRETIK LANDARA**



**DEL TALLER AL CAMPO**  
jovenes con futuro en el mundo rural



**PORTALEA KULTUR ETXEA - BISTA EDER 10 - EIBAR - AZAROAK 28 NOVIEMBRE - 10.00-13.30**

¿ DE LA CIUDAD AL PUEBLO o  
DEL TALLER AL CAMPO?

2

CON LOS ZAPATOS EN EL FANGO  
[AMENAZAS Y DEBILIDADES]

4

CON EL ORDENADOR DEBAJO DEL BRAZO  
[FORTALEZAS Y OPORTUNIDADES]

8

DE LAS LEYENDAS A LAS REALIDADES  
[OTROS FACTORES]

10

HIRITIK HERRIRA ala  
TAILERRETIK LANDARA?

3

ZAPATAK LOKATZETAN  
[MEHATXU ETA ZAILTASUNAK]

5

ORDENAGAILUA BESAPEAN  
[SENDOTASUNAK ETA AUKERAK]

9

KONTUETATIK ERREALITERA  
[BESTE FAKTORE BATZUK]

10

El presente documento pretende recoger las conclusiones de la jornada

## **DEL TALLER AL CAMPO**

*jóvenes con futuro en el mundo rural*

organizadas por el Consejo de la Juventud de Euskadi y EHNE Bizkaia en Eibar el día 28 de noviembre de 2011.

El objetivo principal de la jornada fue realizar un diagnóstico de la situación actual del campo como posible salida para muchas personas jóvenes ante la actual situación de crisis, precariedad y desempleo en la que estamos, haciendo especial hincapié en las siguientes cuestiones:

-los problemas que por ser jóvenes y provenir de una realidad diferente nos encontramos en el camino.

-los aprendizajes positivos con que contamos y lo que le podemos ofrecer a la realidad rural.

-el tipo de mundo rural en el que queremos vivir y especialmente los factores que no queremos reproducir en él.

Aurkezten dugun dokumentu honek 2011ko azaroaren 28an Eibarren burutu zen

## **TAILERRETIK LANDARA**

*gazteria nekazaritzan etorkizun bila*

Jardunaldiaren ondorioak jaso nahi ditu, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua eta EHNE Bizkaiaren esku egon zena.

Jardunaldiaren helburu nagusia landa eremuaren diagnostiko eguneratu bat egitea izan zen, nekazaritzak eta abeltzantzak gaur egungo krisi, prekarietate eta langabezi egoeraren aurrean pertsona gazte askorentzako irteera bat suposa dezakeen heinean. Batik bat hurrengo puntuak landu ziren:

-gazte izateagatik eta landa edo baserria ez den errealitate batetik etortzeagatik bidean topa ditzakegun arazoak.

-eduki baditugun jakituria positiboak eta landa munduari eskaini diezazkiokegunak.

-eraiki nahi dugun landa mundua eta bereziki zein faktore ez ditugun errepikatu nahi.

## **HIRITIK HERRIRA ala**

### **TAILERRETIK LANDARA?**

Industrializazioaren ondorioz XX mendearen erdialdean izandako nekazari-erodetik hiri-biztanleriak ez dio handitzeari utzi eta 2007an, historian lehengo aldiz, munduko biztanlegoaren erdiak baino gehiagok hirietan bizitzera pasa ginen. Euskadi mailan berriz, orain dela luze gairatu genuen kopuru hau eta gaur egun 10.000 bizilagun baino gehiagoko hirietan bizi garenok %80a baino gehiago gara.

Halabaina, azken hamarkadan eta bereziki higiezinaren burbuila izan dela eta, hiri barruan etxebizitzek zeuzkaten prezio ordainezinak ikusita jende askok haien bizilekua hirietatik hurbileko herrietara eramatea erabaki zuen, non bai salmenta prezioak, bai alokairuen errentak, nabarmenki baxuagoak gertatzen ziren.

Erderaz nueva ruralidad, **landa berria**, bezala ezagutu zenak bizitoki aldaketa soil bat suposatu zuen, ez baina, lan mota aldaketa edo ohitura aldaketarik. Honegatik, automobilekiko eta garraio azpiegiturekiko dependentzia indartsu bat ere suposatu zuen, herriak lo-azuo eta landa paisaia izatera pasatuz.

Politika publikoek joera hau indartu zuten. Alde batetik herri eta landa bizitzaren kaltetan hiri-bizitza bultzatu zuen eta oraindik ere

bultzatzen jarraitzen duen lurralde antolamendua daukagu, zeinek lur emankorra kontsumitu eta artifizial bihurtzen duen, higiezinaren eraikuntzari emateko. Bestetik, nekazaritzarako diru laguntzen politikak, zeintzuek gehienetan ordainezinak gertatzen diren lehen momentuko inbertsioak behar dituen nekazaritza intentsiboa sustatzen duten. Honez gain landa eremua turismoaren eskutan uzten duen landa politikak eta inportazio / exportazioa helburu duen merkataritza politikak dauzkagu. Hauek, eta beste askok, hirikoiegia gertatzen den landa mundu bat marrazten dute.

Baina orain, industrializazio, garapen eta progresuaren mitoak kale egiten duela ikusten dugula, eta eskaintzen diguten irteera bakarra prekaritate larriagoa, dependentzia indartsuagoa eta eskubideen urritzea dela, gazte askok landa eremura [ez bakarrik herrira] itzultzean giza garapenarekin bat datorren etorkizun bidegarri bat ikusi dute. Ezarri zizkiguten oinarri oso ezberdinekin eraikitako bizitza proiektu bat aurrera eramateko abagunea.

**Tailerretik landarako** trantsizio hau beharrezko egiten den beste eraldaketa batekin bateratzen da, zeinen helburu azken hamarkadetan industrialki posibleak areagotzearen beharrak bultzatutako produkzio sistemen intentsifikazioaren eraldaketa den. Zuzen ere, intentsifikazio honek eredu eta ohitura galera izugarria bultzatu baitu gure landan. Beraz, ez da soilik merkaturatze sistemaren aldaketa bat, baita produkzio ereduarena ere.

## ZAPATAK LOKATZETAN

### [MEHATXU ETA ZAILTASUNAK]

Landan instalatzeko erabakia hartzen denetik proiektua aurrera eramatea lortzen den arte, arazo ugari gainditu behar dira. Egin beharreko bidea zein den irudikatzeko intentziorik gabe, gazte baserriar berriek haien landarako bidean topatzen dituzten arazorik ohizkoenak aipatu eta deskribatzen dira:

### [ lurra // lurzoruarzñ kontsumoa]

Denon jakinean dago lurra edozein nekazaritza edo abeltzantza proiekturen oinarri dela. Berau lortzea da, beraz, baldintzatzaileetatik lehena, bereziki, jabetza pribatua lehentzen den gurea bezalako sistema batean, non 'pastela banatua dagoela' heltzen garen gazteok.

Lurzoruen erosketak proiektuari askotan jasanezina gertatzen den aurre-inbertsio bat gehitzen dio, lurraren hipoteka beharrezko bihurtuz eta berez, dependentzia handiko esplotazio intentsibo batera lotuz.

Bestalde, alokairua ez dago normalizaturik eta eredu honekin lurra lortzea oso zaila egiten da. Honez gain, lur familiarrak dauzkatenek maiz egin behar diote familiaren ezezkoari aurre, izan ere, landak pobrezia besterik ez dakarrenaren aurriritzia oso errotua baitago.

Eta gutxi balitz, hau guztia azpiegiturak eta hiriak eraikitzeko helburuarekin lurzorua kontsumoa sustatzen jarraitzen duen lurralde antolamendu desarrollista baten barruan ematen da, zeinek landatzeko lur hoberenak, eta eskasena, artifizializatzen dizkigun.

### [ lan baldintzak ]

Landa mundua bigarren maila batean utzi duen gizarte honetan, lehen sektorean lan egiten duen jendearen lan baldintzak maila ezberdin batean geratu direla ere ikus dezakegu, landa munduko lanen baldintza propioetaz kanpo.

Soldatapeko enpleguak nekazal enpleguaren %10a baino gutxiago suposatzen du eta gehienetan prekaritatea, behin-behinekotasuna eta urtarokotasunak baldintzatua ikusten da, beraz landan ezarri nahi duten gazteentzako ez da bide gogotsu bat. Honek derrigorrezko bihurtzen du autonomo gisa ezartzera, zeinek berez lan eskubide murrizketa orokor bat dakarren nekazaritzan, baja eskubideetan (bai gaixotasun bai ama-aitatasun gaitan), langabezi laguntzetan, oporretan... eta abar.

Hau guztia, herrietan dagoen gero eta zerbitzu falta handiagoari, sistematikoki hirietan zentralizatzen joan direnak, eta enpresa banatzaile handiek elikagaien prezioen, produkzio sistemen eta merkaturatze ereduaren gainean eragiten duten presioari lotuta gizarte eta lan eskubideak landa eremuan izugarri murriztuak izatea

eragiten dute, ezarri nahi duten nekazari berrien erabakia zailduz.

### [**legeria, araudia eta enpresa handiak**]

Landa mundua estatu eta Europako laguntzei esker mantentzen denaren ideia oso zabalduta dago, alabaina, eskaintako laguntzak erdi epe eta epe luzera gainditzeko zailtasun larri batean bihurtu daitezke, esplotazio intentsiboetara bideratuak baitaude, inbertsio handiak, eskala handiko produkzioak eta industrializatutako salmentak beharrezkoak eginez.

Nekazaritza eta abeltzantza ezarpen berriak, eskala txikiagoko produkzio ekologiko eta urtarokoan oinarritutakoak, hurbiltasuneko kontsumoa sustatzen dutenak eta azken finean, produkzio eta merkaturatze eredu ezberdin bat aldarrikatzen dutenak, ez dute laguntza horiek eskuratzeko, eta honez gain, araudi ezberdinek ere zailtasuna berriak jartzen dizkiete bidean.

Honen adibide, besterik beste, osasun araudia da, zeinek ikastola eta beste jantokiei salmenta zuzena debekatzen duen edo animalien hiltzea hiltegietatik at baimentzen ez duen. Azken hau ez litzateke arazo bat eskualdeetako hiltegiak mantendu izan balira



eta zentralizazio prozesuan ez baleude, honek garraioa ordaintzeko soilik, produkzio handiagoa izatera behartzen baititu abeltzainak.

Honez gain, transgenikoen eta jabetasun intelektualaren alde mugitu eta mugitzen diren harien hasien pribatizazioa ari dira ekartzen, bertoko bariatateen galerarekin batera. Honek produktore txikien bidegarritasuna zaildu egiten du eta dudarik gabe, ezarri nahi den jende berriarentzako zailtasun latz bat sortzen du.

### [**ohiturak, rolak eta gizartearen balorazioa**]

Hamarkadak eman ditugu desarrollismoa, BPGaren haziera, teknologiaren promesa eta hiri ametsekin, eta ez da dohainik izan gure irudikari kolektiborako. Orain ere, kapitalismoaren otsoari muturra ikusten hasi gatzaiola, landa pobrezia irudi gisa eta hiria oparotasun irudi gisa mantentzen dugu.

Honegatik, nekazaritza edo abeltzantzan ezartzearen erabakia hartzen dutenek haien inguruko aurriritziekin ere borrokatu beharra ikusten dute, izan ere, askok familiak eta lagunak landara itzultzea atzera pauso bat ematearen berdintsu ikustearekin topatzen dira, emakumezkoek genero desberdintasunen inguruko aurriritzi ugariarekin eta gehienek ulertezintasun orokor batekin borrokatu behar dute. Beraz, irudikari ezezkor hauek desagitea eta gizartearen balorazioa, berdintasuna eta ekitatea berezkoak dituen landa munduaren irudi positibo bat eraikitzea premiazkoa gertatzen da.

## **ORDENAGAILUA BESAPEAN [SENDOTASUNAK ETA AUKERAK]**

Tailerretik landarako bidean topa daitezkeen arazo denen gaineratik gero eta gazte gehiagok bizi proiektu moduan aukera hau hartzen dute, dudarik gabe, aurretik ez ikusitako onura ugari ere badaukalako. Hemen, jardunaldietan aipatutako indar puntu eta aukera garrantzitsuenak islatzen dira:

### **[ gizarte sentsibilizazioa // elikadura subiranotasuna]**

Zorionez, pertsonon sinesgarritasunak badauka amaierarik, eta gizartea gero eta sentsibilizatuagoa dago ingurugiroa errespetatzen duten eta elikadura ziurtasun handiagoa bermatzen duten lekuko produkzio sistemetara itzuli beharrezkin.

Errealitate honen aurrean, eta egungo merkatuko enpresa banatzaile handien oligopolioaren aurrean, ezarri nahi duten nekazari berriek nekazaritza/abeltzantza proiektu txiki ekologikoak ezartzeko abagunea topatzen dute. Horrela, kontsumo taldeen moduko ekimenak nekazari hauen finkatzean laguntzen dute, hiri bizitzaren irudikariak desegiten lan egiten dute, produktoreentzako merkatuaren joan etorrietatik at egonkortasun eta independentzia handiagoa bermatu, bai eta

kontsumitzaileok produktuen jatorriarekin ere lotzen gaituzte, landa eta hiriaren arteko loturak estutuz.

### **[ elikadura krisiari aurrera hartu ]**

Honez gain eta jaten dugun gehiena atzerritik ekartzen dugun gizarte honetan, non elikatu ahal izateko petroleoaren menpe geratu garen eta non gure janaria hasteko gaitasuna galdu dugun, landari benetan daukan eta inoiz galdu behar izan ez zuen garrantzia itzultzea erregai fosilen bukaerarekin etorriko zaigun elikadura krisiari aurrea hartzeko beharrezko faktore bat da.

Honela ba, gaur landa eremuan ezartzen diren pertsonak gure etorkizunerako euskarria eraikitzen ari dira.





### [ talde-proiektuak ]

Martxan jarri baino lehen proiektua argi edukitzea berebizikoa da, arazoak lagunen artean hobe jasan eta saihesten direla argi edukitzea bezalaxe.

Bai lan baldintzekin zerikusirik daukanarekin, bai lurra lortu edo administrazioaren aurrean indarra edukitzeko ere, indibidualismo modernoari aurre egiteko sortzen ari diren sare eta aliantza ezberdinetan, eta bereziki proiektu kolektiboetan topa dezakegu sendotasunetatik garrantzitsuenetariko bat da.

### [ laguntza eta formazioa ]

Tailerretik landarako pausuak testuinguru aldaketa garrantzitsu bat ere badakar berarekin, eta honek gure landaren beharren inguruko formazio falta azaleratuko du, alabaina, EHNEbizkaia bezalako eragile ezberdinen aldetiko laguntzak bidea leundu dezake, bereziki ezarri nahi dutenen artean sareak sendotzeko egiten den esfortzuagatik eta ematen den formazio bereziagatik.

Modu honetako laguntzak sendotasun garrantzitsu bat suposa dezakete, berez, hirian eta tailerrean egon izanagatik jasotako esperientziak ematen duten jakituria propioa den bezala, landa tradizionalen ez baitzegoen lehenago horrelakorik. Besteak beste, antolamendu sistemak, informazio eta komunikazio teknologiak...

### [ gizarte sare sendoa ]

Luze hitz egin da azken hamarkadetan zehar landa eremuak pairatu duen isolamenduaren inguru, gehien bat hirietan ezarritako botereek berekiko izandako ahanzteak dela eta, emandako errekurtsu maila urria eta baita jendearen kopuruaren urritasunagatik ere, batik bat opor kanpoko garaitan. Horrela ba, hirietatik etorritako jendea, zeinek haien ezarpenaren aurretik gizarte sare sendo bat eraiki duten, puntu honetan indartsu dira, isolamendua ekiditeko aukera ugari baitituzte.

Honez gain, hau abagune bikain batean bihurtu daitezke, pixkanaka hiritarrek herriaren gain eraiki duten irudikaria aldatzen laguntzeko.

### [ motibazioa ]

Diotenez, motibazioa %50an beharrez eta %50an amets bezalaxe osatzen da. Landa munduan ezartzea erabakitzen dutenek eta berez, hirietan bizi eta lan egiteko inertzia gainartzailearen kontra dabilzanek, badaukate, dudarik gabe, amets eta ilusio nahikotxo. Beharra, berriz eta tamalez, egungo egoerak emanen digu.



## DE LAS LEYENDAS A LAS REALIDADES [OTROS FACTORES]

Hay factores que influyen de manera muy diferente para unas personas y para otras, ya que dependen mucho del contexto social/familiar en el que nos encontremos. Así, quienes vienen de familias baserritarras tienen una fuente de conocimiento en su propia casa, aunque a veces a la familia se le haga difícil aceptar que tras haber estudiado una carrera vayas a volver al campo, quienes vienen de otros entornos probablemente cuenten con un tejido social muy consolidado que rompa con el aislamiento social al que se sometió el campo, quienes vienen de realidades muy idealistas estarán llenas de energía y aunque verán que no todo es tan bucólico como se imaginaban ya habrán dado el primer paso y quienes sólo se instalan por necesidad renegarán como lo hacían sus abuelos de las fábricas...

De todas maneras, es cuanto menos interesante, tener bien presente que los conocimientos se adquieren, las costumbres es posible desaprenderlas, la sociedad se reeduca a diario y el imaginario colectivo se dibuja poco a poco.

## KONTUETATIK ERREALITERA [BESTE FAKTORE BATZUK]

Egon badaude batzuen eta besteen gain ezberdin jotzen duten zenbait faktore, gizarte edota familia testuinguruaren oso menpekoak izateagatik. Horrela ba, baserritar familietan hasi izan direnak etxean bertan daukate jakituria iturririk onena, familia askorentzako unibertsitatera joan ostean nekazaritzan norbaitek bidea bilatzea ulertzea zail egiteagatik batzutan kontrari jotzen badu ere. Beste testuingurutatik datozenak, berriz, gizarte sare indartsu bat edukiko dute zeinekin landako isolamendua apurtu, edo errealitate idealistetatik etorritakoak energiaren bete egongo dira, horren besteak ze imaginatutako bukolikotasuna horrenbestekoa ez dela konturatzen direnerako lehen pausuak emanak edukiko dituzte landan, eta beharragatik soilik ezartzen direnak, haien aiton-amonek fabriken inguru marmarrean ibili ziren modura marmarka ibiliko dira...

Dena den, komenigarria da behintzat zenbait gauza argi edukitzea, izanez, jakin beharrekoa ikasteko beti dagoela denbora, ohitura txarrak baztertu ere egin daitezkeela, gizartea berhezitzen dela egunero eta irudikari kolektiboa pixkanaka-pixkanaka soilik birmarraztu daitezkeela.



VIAJES Y  
TRANSPORTE

I **LOV**  
COST

Avión  
Autobús  
Tren  
Alquiler  
etc...

Con tu nueva Gazte-txartela consigues lo mismo que los demás, pero por mucho menos.

**Aquí y en toda Europa.**

Ocio, compras, deportes, formación, viajes... con descuentos de hasta el 50%. Pídelo ahora y podrás conseguir un viaje en tren por Europa por la cara.

¿Cómo?

 [gozte.euskadi.net](http://gozte.euskadi.net)



Multiplica el poder de tu Gazte-Txartela con las Cajas colaboradoras.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA BAZKA

Ministerio de Cultura

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Departamento de Cultura

bbk

Caja Vital Kutxa

kutxa

